



# AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1 SARRERA.....  | 4  |
| 2 HELBURUAK .....   | 5  |
| 3 2024KO PLANIFIKAZIOA.....   | 6  |
| 4 2024KO JARDUERA.....  | 7  |
| 4.1. Talde Eragilea .....   | 7  |
| 4.2. Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-<br>sozialeko zuzendaritzaren lantaldea ..... | 7  |
| 4.3. Plenarioa.....   | 8  |
| 4.4. Foro Teknikoa .....  | 9  |
| 4.4.1. Bilgune Teknikoa.....  | 9  |
| 4.4.2. Lan-lerroak .....  | 14 |
| 4.4.2.1. Partaidetza egituratzea .....  | 14 |
| 4.4.2.2. Partaidetzaren kalitatea .....   | 16 |
| 4.4.2.3. Partaidetza komunitarioa .....   | 19 |
| 4.4.3. Trebakuntza .....  | 21 |
| 4.4.4. Komunikazioa.....  | 24 |
| 5 BALORAZIOA .....  | 25 |
| 5.1. Balorazio orokorra .....   | 25 |

Herritarren Partaidetzaren alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Oheko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaritzak gidatzen duen **Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren 2024ko jardueraren memoria** jaso du Elhuyarrek dokumentu honetan.

## 1 SARRERA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako **Erakunde arteko Espazioa** Gobernu Oheko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaritzaren ardurapean garatzen ari da. Bere jarduna 2017ko urtarrilaren 17ko 1/2017 Foru Dekretuak zehazten du eta erdiesten dituen xede nagusia eta helburuak hauek dira.

### Xede nagusia

Lan egitea herritarren partaidetzaren garapenean, Foru Aldundiaren eta toki entitateen zeharkako jarduketa esparrutzat hartuta. Horretarako, Espazioak elkarriketak sustatzera eta herritarren partaidetzako politikak bultzatzera bideratutako erakunde-esparrua izan nahi du bereziki, eta, aldi berean, esperientzia eta praktika onak trukatzeko eta arlo horretako gaiak denon artean ikasteko esparru bat.

### Helburuak

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernua eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.
- e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

## 2 HELBURUAK


la zazpi urteko ibilbidean, Erakundeen Arteko Espazioak egitura organikoa bere osotasunean abian jarri du eta Espazioa egonkortzen, atzemandako gabeziak gainditzen eta udalen inplikazioa handitzen jarri ditu bere indarrak. Partaidetzaren alorreko esperientzia eta kezak trukatu eta Gipuzkoako udalerriak elkartzeko topagune erreferentzial eta egonkorra bilakatzeko urratsak eman dira. Eta partaidetzarako aurrebaldintzak sortzeko ekintza komunitarioaren marko instituzionala definitu da.

Egindako bidea egonkortu eta hedatu nahian, eta jorratutako norabidean urratsak ematen jarraitzeko helburuarekin, eta 2019-2023 legegintzaldiaren ebaluazio-prozesuak emandakoan oinarri hartuta, abiatu berri den 2023-2027 legegintzaldirako lan-eremu eta ildo estrategikoak hauek dira:



### 3 2024KO PLANIFIKAZIOA

Helburuei erantzun asmoz diseinatu genuen urte hasieran 2024ko jarduera-plana eta urteak aurrera egin ahala, testuinguruko behar eta aukerei erantzun asmoz, moldaketa batzuk egin dizkiogun arren, hasieran aurreikusitako ildoan garatu dugu. Ondorengo kronograman, urteak eman duena jasotzen dugu:



## 4 2024KO JARDUERA

### 4.1. Talde Eragilea

Adostutako 2024ko plangintza koordinatu eta bideratzeko Elhuyar Aholkularitzako teknikariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaritzaren ordezkariak 12 aldiz bildu gara 2024 urtean zehar. Horietatik 5 bilera lehen seihilekoan izan dira, eta gainerako 7ak, bigarreanean. Bilerez gain, etengabekoa izan da posta bidezko eta telefono bidezko harremana.

Talde Eragilearen egiteko nagusiak prozesua abiatu eta ondo bideratzeko baldintza egokiak prestatu eta sortzea izan dira, baita etengabeko jarraipena burutzea ere.

### 4.2. Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaritzaren lantaldea

Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaritza osatzen duen lantalde guztiarekin (lantalde tekniko-politiko) saio bat egin genuen urte hasieran, legegintzaldiko estrategia finkatzerakoan lantaldearen begirada osoa eta integrala izatea beharrezkoa dela iritzita.

Hasteko, 2023-2027ko planifikazio estrategikoaren gainean aritu ginen, 2019-2023 legegintzaldiko plangintzaren ebaluazioa eta 2023-2027ko norabidetzea zehazteko txostena abiapuntu hartuta. Zehazki, ildo estrategiko bakoitzeko helburuak gogoratu eta horietan lehentasunak ezartzeko ariketa bat egin genuen, lehentasun altuagoko, ertaineko edo baxuagoko helburuak ateratzeko.

Emaitzari dagokionez, oro har, helburu gehienak maila altu/ertainean eta eragiteko gaitasun altu/ertainean kokatu ziren. Era berean, garrantzia maila baxuan eta eragiteko gaitasun txikian, ez zen helbururik jarri. Horrek esan nahi du, aurreko urteko ebaluazio-prozesutik ateratako estrategia markoak baduela egingarritasun eta koherentzia bat lanerako planteatzen diren helburu eta ekintzekiko. Era berean, lanean jarraitzeko abiapuntua ona dela adierazten digu.



Gainera, garrantzia maila altua eta eragiteko gaitasun altua islatzen zuten eremutan, landu nahi diren eremu guztietako helburuak jaso zituzten; horrek adierazi dezake, eremu guztietan dugula lanerako abiapuntu egokia.

Hala, saioaren hurrengo urratsa helburu estrategiko horiek garatzeko 2024an zein ekintza/talde/proiektu martxan jarri genitzakeen lantzea izan zen. Beti ere, jakitun izanik, bertan landutakoa hasierako oinarri bat izango zela, ondoren Bilgune Teknikoan aberastu eta Plenarioan onartuko zena.

### 4.3. Plenarioa

Martxoaren 7an egin genuen Plenarioa, bi helburu nagusirekin:

1. 2023-2027 planifikazio estrategikoa oinarrian hartuz, 2024rako jarduera-plana onartzea.
2. “Herritarrekin gobernantza eta lankidetzak inklusiboagoak” ikerketaren ondorioen aurkezpena.

Beti ere, ahaztu gabe saio honek zeharkako helburuak ere badituela: partaideen elkar ezagutza, talde-kohesioa eta praktikan oinarrituta, elkarrekin ikastea

- Zenbait datu:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkarikopurua | Udalerrikop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak             |             | Generoa |      |
|-----------------|---------------------------------|--------------|---------------|---------|--------|---------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                 |              | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkaripolitikoak | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 19                              | 14           | 11            | 4       | 4      | 13                  | 6           | 8       | 11   |

Lehendabizi, Mikel Pagola, Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendariak, 2023-2027ko planifikazio estrategikoa egiteko prozesua aurkeztu zuen. Hala, 2023aren lehenengo zatian legegintzaldia ebaluatzeko prozesua egin genuela gogorarazi zuen eta orduan finkatu genuela legegintzaldi berrirako norabidea. Eta legegintzaldia hasi berritan udaletan egindako bisiten berri eman zuen ondoren. Bisiten helburua izanik, elkar ezagutzea, zerbitzuaren eskaintzaren berri ematea eta herrietako asmo eta erronkak ezagutzea.

**Datuak:**

73 udaletako ordezkariekin bildu da, orotara 117 pertsonen parte hartu dute: 61 alkate (24 e /37 g); 40 zinegotzi (27 e/13 g); 16 teknikari (11 e/ 5 g)

Hau eginda, Itziar Calvok, zerbitzuburuak, 2023-2027rako plangintza estrategikoaren markoa, eremu/ildo eta helburuak aurkeztu zituen lehenbizi, eta 2024rako jarduera-planaren proposamena ondoren, harrera oso ona izan zuena.

Azkenik, atal honi amaiera emateko, jarduera-plana garatzeko lantalde eta mintegietan parte hartzeko interes-maila zenbatekoa den ikusteko dinamika bat egin genuen. Eta, oro har, taldeak, Espazioak antolatzen dituen foro eta ekintzetan jarraikortasunez eta aktiboki parte hartzeko jarrera erakutsi bazuen ere, kasu askotan, egunerokoan, nahi luketen mailan parte hartzeko zailtasunak dituztela ere adierazi zen. Esan daiteke, oro har, teknikariek politikariek baino jarraikortasun handiagoz parte hartzeko jarrera erakutsi zutela.

Gauzak horrela, saio honetan, 2024ko plangintza ontzat eman zen.

Saioaren bigarren zatian, Aztiker Soziologia ikergunetik “Herritarrekin gobernantza eta lankidetzak inklusiboagoak: gako berrien bila” ikerketaren prozesua eta emaitzak aurkeztu zituzten. Ikerketaren helburu nagusiak hauek izanik:

- Partaidetza-ereduan, eta herritarren inplikazioari dagokionez, hutsune eta desorekak aztertzea.
- Partaidetza-eredu eta -sistema anitzagorantz joateko zabaldu behar diren bide eta landu beharreko aukerak aztertzea.
- Herritarren begirada txertatzea.



- [“Herritarrekin gobernantza eta lankidetzak inklusiboagoak: gako berrien bila” ikerketaren aurkezpena.](#)



## 4.4. Foro Teknikoa

### 4.4.1. Bilgune Teknikoa

Bilgune Teknikoa Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren planifikaziorako gune nagusia da, baita Gipuzkoako Herritarren Partaidetzako teknikarien eta herri txikietako ordezkarien arteko elkargunea ere.

2024an hiru Bilgune Tekniko egin ditugu, otsailean lehendabizikoa, uztailen bigarrena eta abenduan hirugarrena.

⇒ [1. Bilgune Teknikoa: otsailaren 15ean, 2024ko jarduera-plana](#)

Bileraren helburuak:

- 2023ari begirada azkar bat egitea
- 2023-2027 planifikazio estrategikoa oinarrian hartuz, 2024rako jarduera-plana lantzea.

Zenbait datu:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkarikopurua | Udalerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak                 |             | Generoa |      |
|-----------------|---------------------------------|---------------|---------------|---------|--------|-------------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                 |               | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkarit politikokoak | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 14                              | 12            | 8             | 3       | 3      | 1                       | 13          | 9       | 5    |

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 3 ordezkarik eta Elhuyar Aholkularitzako 2 teknikarik ere parte hartu dute. Guztira, hortaz, 19 lagun bildu gara (15 emakume eta 4 gizon).



Bileraren lehen zatian, atzera begirada egin genuen; alegia, 2023an egindako lana gogoratu eta baloratzeko tartea hartu genuen. Eta gisa honetako sententzioak jaso genituen, bakoitzaren inpresioez galdetuta:



Eta saioaren bigarren zatian, etorkizun hurbilera begira jarri ginen, urteko ikusmirarekin. Zehazki, jarduera-planean egitura bakoitzerako proposamena azaldu genuen, kronograma batera ekarrita. Eta guztion artean, ekintzetan gehiago arakatu eta sakondu genien, galdera hauei erantzuteko eskatuta: *Zerbaít moldatuko zenukete 2024ko jarduera-planean? Zerbaitek arreta berezia eman dizue?*

Harrera oso ona izan zuen plangintzak eta udalen beharrei oso egokitua zegoen planifikazio baten aurrean geundela azpimarratu zen; eta honekin batera, jorratu asmo zeuden gaien estrategikotasuna, anbizioa eta ausardia ere nabarmendu ziren. Bestetik, erronka gisa, batetik, jende berria erakartzeko erronka eta bestetik lanketen arteko artikulaziorako guneak sortzea aipatu ziren.

Hala, taldeak ontzat eman du jarduera plana.

⇒ 2. Bilgune Teknikoa: uztailaren 5ean, plangintzaren jarraipena

Bileraren helburua: 2024ko jarduera-planaren jarraipena egitea

Zenbait datu:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkarikopurua | Udalerrikop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak             |             | Generoa |      |
|-----------------|---------------------------------|--------------|---------------|---------|--------|---------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                 |              | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkaripolitikoak | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 12                              | 12           | 5             | 4       | 3      | 1                   | 11          | 6       | 6    |

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 3 ordezkarik eta Elhuyar Aholkularitzako 2 teknikarik ere parte hartu dute. Guztira 17 lagun bildu gara, 11 emakume eta 6 gizon.



Bileraren lehen zatian, lehen seihilekoan egindako lanen berri eman genuen, hilez hil izandako lan eta saioak zein izan ziren eta zer eman duten azalduz. Laburbilduz, urteko lehen seihilekorako aurreikusitako kronogramari dagokionez, aurreikusitako gehiena bete bazen ere, izan dira zenbait kontu kronograman atzeratu direnak:

- Uztailean jardunaldi ireki bat genuen aurreikusita (tailerren itzulera-saioan ateratako edukiak kontuan hartuta). Ikusita, uztailea horretarako data egokia ez dela, eta horren antolaketak ere lana eskatzen duena, bigarren seihilekora pasatu genuen, azaroaren 21era, hain zuzen ere.
- Herri txikien lantaldearen aktibazioa uztailetik irailera atzeratu zen.
- Ekintza komunitarioaren lantaldearen aktibazioaren atzerapena. Batez ere, Oscar Rebollori eskatu zaiolako enkargu bat, prozesu komunitarioak diseinatu eta garatzeko prozesu metodologikoa lantzea eta horrekin batera, prozesuak garatzeko lagungarriak diren tresna eta baliabide metodologikoak jasotzea. Horregatik, harrera-lantaldea behin lanketa hori dagoenean aktibatzea hobetsi zen.

Bileraren bigarren zatian, urteko bigarren sei hilabeterako planteamendua aurkeztu ondoren, ekarpenak jasotzeko tartea ireki genuen. Eta oro har, proposamena bere horretan ontzat jo bazen ere, abiatzeaz zeuden lanketak aberasteko ekarpen dexente jaso ziren.

⇒ 3. Bilgune Teknikoa: abenduaren 13an, urtearen ebaluazioa egitea

Bileraren helburua: 2024ko jarduera-planaren ebaluazioa egitea; eta 2025eko jarduera-plana marrazten hastea

Zenbait datu:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkari-kopurua | Udallerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak                |             | Generoa |      |
|-----------------|----------------------------------|----------------|---------------|---------|--------|------------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                  |                | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkaritza politikoa | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 6                                | 6              | 3             | 1       | 2      | 0                      | 6           | 3       | 3    |

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 2 ordezkariak eta Elhuyar Aholkularitzako 2 teknikariak ere parte hartu dute. Guztira 10 lagun bildu gara, 7 emakume eta 3 gizon.



Martxoaren 7ko Plenarioan onartutako urteko jarduera-planaren kronograma oinarri hartuta, urteak emandakoaren berri jasotzen duen bideoa jarri genuen, non egindako lanketa eta urrats guztiak jasotzen diren eta baita datuen ikuspegitik zenbat pertsonen parte hartu duten antolatutako espazio eta ekintzetan.



- [2024ko bideo-memoria](#)

Hala, 2024aren ebaluazioa egin genuen, lau ebaluazio-blokeren arabera: 1) landu diren gaiak; 2) formatua eta dinamika; 3) taldea; eta 4) libre.

Eta jasotako bizipenetatik ideia nagusiak honakoak izan ziren:

- **Landutako gaiak.** Batetik, gaiak udalen beharretatik abiatuta landu dira eta hori dinamikan eskertu egiten da. Eta bestetik, politikariak gehiago inplikatzeko bidea jorratzen jarraitu behar da eta horretarako lidergoaren jardunaldiak jarritako abiapuntuari tiratzea egokia litzateke. Gainera, lege esparruan sakontzea eta idazkari eta kontu-hartzaileak ere inplikatzen beharra ere aipatu zen.
- **Formatua eta dinamika.** Formatu malguak ahalbidetzen duena da bakoitzak bere ahalmenen arabera parte hartzea eta hori interesgarria ikusten da. Hala ere, teknikariek gain, herritarrekin eta politikariek lan egiteko esparru gehiago ireki beharra ere nabarmendu da, horretarako, beraien aukera eta beharretara egokitutako espazio erosoak sortzea bilatuz.
- **Taldea.** Harremanak beste modu batera eraikitzeke ahalegina sumatzen da eta horren erakusle da taldean dagoen konfiantza eta giroa. Hala ere, badira udalerrri batzuk bere garaian EAEn inplikazioa handia zeukatenak eta egun apenas parte hartzen dutenak. Horren atzean zer dagoen arakatu beharko litzateke.

Bestalde, teknikarien harrera-prozeduraren lanketa eta marko legalaren lanketaren inguruan kontrasteak egiteko ere baliatu zen saioa.

Eta azkenik, 2025eko plangintzaren proposamena aurkeztu genuen eta abiapunturako plangintza egokia zela adierazi zen. Hala ere, plangintzaren lanketa xeheagoa 2025eko lehen Bilgune Teknikoan egingo da

### 4.4.2. Lan-lerroak

#### 4.4.2.1. Partaidetza egituratzea

→ Herritarren partaidetzarako eta ekintza komunitariorako lidergoa partekatua

Urte hasieran aurreikusita ez bazegoen ere, lidergo partekatuen gaiak zentralidadea hartu du aurtengoan. Zehazki, herritarren partaidetzarako eta ekintza komunitariorako lidergo partekatuen inguruan gogoeta egiteko espazioak ireki ditugu, teknikari, politikari eta elkarten begiradatik.



Saioa kokatzeko atzera egin behar da. Izan ere,

Bidelaguntza programaren barruan Gipuzkoako 22 udalerrietan egindako tailerren itzulera-saioan, lurralde gisa ditugun erronken artean identifikatu zelako lidergoaren gaia.

Partaidetza eta ekintza komunitarioan oinarritutako politika publikoak egiteko beharrezkoa dugun lidergoan (politikoa, teknikoa zein herritarrena) jarri zen azpimarra. Eta hortik eratorri zen gaia lantzeko jardunaldi bat diseinatzeko proposamena eta jardunaldi horren aurretik lanketak egitearen ideia, protagonista nagusien ahotsak, gogoetak, gaiarekiko pertzepzioak eta zailtasunak jasotzeko. Zehazki, galdera hauen bueltan aritu ginen:

**Politikarien/Elkartegintzaren/Teknikarien jardunean, zertan atzematen da lidergo partekatu bat dagoela? Zer egiten du? Zer jarrera, ekintza edo gaitasunek ahalbidetzen dute lidergo partekatu hori?**

Saioak oso emankorrak izan ziren eta gaiarekiko interesa eta gaian sakondu beharra berretsi zen hiru saioetan.

Zenbait datu:

| BILERA-MOTA   | Ordezkarikopurua | Udalerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak             |             | Generoa |      |
|---------------|------------------|---------------|---------------|---------|--------|---------------------|-------------|---------|------|
|               |                  |               | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkaripolitikoak | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Elkartegintza | 17               | -             | -             | -       | -      | -                   | -           | 12      | 5    |
| Politikariak  | 13               | 10            | 5             | 6       | 2      | 13                  | -           | 9       | 4    |
| Teknikariak   | 9                | 9             | 6             | 1       | 2      | -                   | 9           | 5       | 4    |

Ondoren, gogoeta-saio horietan jasotakoaren itzulera gisa eta gaian adituak direnen inspirazioarekin aberasturik, jardunaldi bat antolatu genuen azaroaren 21ean, UIKekin elkarlanean.

Gaia, beraz, honakoa izan da: partaidetza eta ekintza komunitarioan oinarritutako politika publikoak egiteko beharrezkoa dugun lidergoa (lidergo politikoa, teknikoa zein herritarrena). Eta zehazki, lidergo partekatua erantzen jarri genuen fokua, ondorengo galderak erantzun nahian:

- Zertaz ari gara lidergo partekatuz ari garenean?
- Zerk errazten ditu lidergo horiek?
- Nork bere ardura eta boteretik (politikari, teknikari, herritar) zer dugu esateko?
- Zeintzuk dira gure indarguneak, zer bide dugu oraindik jorratzeko?

Jardunaldiak harrera oso ona izan zuen, gaiaren garrantzia eta estrategikotasuna berretsi zen eta sakontzen jarraitzeko oinarriak bazaudela ikusi genuen.

Hemen, jardunaldian eta jardunaldirako sortutako materiala:



- [Lan-eremua kokatzeko bideoa](#)
- [Jardunaldiak eman zuenaren kronika](#)
- [Jardunaldiko ideia nagusiak, aditu eta bertaratuen ahotik](#)

Zenbait datu:

| BILERA-MOTA     | Ordezkarikopurua | Udalerri kop. | Elkarte kop. | Aholkularitza kop. |
|-----------------|------------------|---------------|--------------|--------------------|
| Aurrez aurrekoa | 73               | 32            | 10           | 12                 |

**Programa**

|  |             |
|--|-------------|
| Sarrera instituzionala   | 9:30-10:00  |
| Trekiera hita <span style="font-size: small;">ldia</span><br>Begoña Roman Maestre      | 10:00-11:00 |
| Gogoeta partekatua<br>Politikari, teknikari eta elkarleen gogoetak                     | 11:00-12:00 |
| Atsedena   | 12:00-12:30 |
| Lidergo lana errazteko gakoak<br>Axel Moreno Gálvez                                    | 12:30-13:30 |
| Ondorioak<br>Gizarte Kontseiluko kideak: Ainhoa Novo Arbona eta Nagore Ipiña Larrañaga | 13:30-14:00 |
| Itxiera eta mokadutxoak  | 14:00-14:30 |

**Hizlariak**



**BEGOÑA ROMAN MAESTRE**  
Bartzelonako Unibertsitatea  
Filosofa, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea



**AXEL MORENO GÁLVEZ**  
Aholkularia, formatzailea eta ikertaria  
Politika publikoetan, tokiko garapenean, gobernantzan eta herritarren partehartzean espezializatua



**AINHOA NOVO ARBONA**  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Politika eta Administrazio zientzietan EHUKo irakaslea eta ikertaria



**NAGORE IPIÑA LARRAÑAGA**  
Mondragon Unibertsitatea  
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko dekanoa

### 4.4.2.2. Partaidetzaren kalitatea

#### → Teknikari berriei harrera egiteko prozedura

Aldian aldi, Erakunde Arteko Espazio honetara udal-teknikari berriak batzen dira, zeinak, dagoeneko eratuta eta martxan dagoen egitura batera batzen diren. Hurbilpen hau beti ez da erraza izaten, Erakunde Arteko Espazioaren egituraketa eta konplexutasuna tarteko.



Horregatik, beharrezko ikusi da Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espaziora hurbiltzen diren udal-teknikari berriei harrera egiteko bide-orri edo prozedura bat landu eta adostea. Beti ere, teknikarien arteko sareak indartzeko eta elkarren arteko bidelaguntzak sustatzeko lehenengo urrats gisa.

Bide-orri hau lantzeko, gaur egun Erakunde Arteko Espazioa partaide diren hainbat udal-teknikari elkarrizketatu dira; Pasaia, Aretxabaleta, Astigarraga, Zaldibia eta Hernani). Elkarrizketa hauetan euren esperientzia ezagutu eta berau hobetzeko proposamenak jaso dira; zeinak Bilgune Teknikoan aurkeztu eta landu ondoren, bide-orri proposamen honetan jaso diren. Honenbestez, bide-orri honek helburu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espaziora hurbiltzen diren udal-teknikari berriei harrera egitea.

Bide-orria implementatzea izango da hurrengo urratsa eta saioetan jaso den beste ekarpen bat litzateke, ordezkari teknikoei ez ezik, ordezkari politikoei ere harrera egitearena.



- Bide-orria jasotzen duen txostena
- Oinarriko materialen karpeta

#### → Herri txikien lantaldea

Herri txikien lantaldea berraktibatu da udazkenean, gai zehatz bati lotuta: udalerrietako ekipamendu komunitarioak. Hori horrela, bi saio egin ditugu - Iruran lehendabizikoa eta Belauntzan bigarrena - urtea amaitu bitarte eta kide berriak gehitu zaizkigu fase berri honetan.



Finean, udalerrri guztietan ditugu herri-ostatua, liburutegia, kultur etxea, ludoteka... Eta gehientsuenetan, eta are gehiago, herri txikietan, zerbitzu konkretu bat emateaz harago intenzionalitate sakonagoa izan ohi dute. Badira, askotan, herritarrentzako elkargune, herritarren behar eta kezka jasotzeko espazio aproposak, etab., baina badituzte hainbat hutsune ere: beti berdinak hurbiltzen dira, udalak izaten du ardura osoa...

Bertaratu ziren udalerrietako ordezkari bakoitzak bere udalerriko ekipamenduetan pentsatu eta begirada komunitarioago bat izateko zer egin daitekeen elkarrekin hausnartzea izan dugu helburu saioetan. Lehenengoan kokapen bat egin genuen eta lehendabiziko gogoetak partekatu genituen, bakoitzak bere errealitatetik.

Eta bigarren saioan, hasteko, ikuspegi komunitariotik diseinatutako udal-ekipamendu baten esperientzia ezagutu ahal izan genuen, zehazki, Asteasuko kultur etxe berriarena: kultur etxe berria irudikatzen egindako parte hartze prozesua, Kultur etxe berria irudikatzerako garaian kontuan hartutako aldagaiak, etab. Eta ondoren, bertaratuek udalerrri bateko praktika erreal bati ekarpenak egiteko dinamika bat egin genuen, bakoitzaren bizipen eta ikaspenetatik besteen proiektuak elikatu eta aberasteko helburuarekin.

Hasitako bideak balorazio oso ona izan du eta 2025ean ildo beretik jarraitzea aurreikusten dugu.

1. bilera:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkari-kopurua | Udalerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak                |             | Generoa |      |
|-----------------|----------------------------------|---------------|---------------|---------|--------|------------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                  |               | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkaritza politikoa | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 11                               | 8             | -             | -       | 11     | 9                      | 2           | 6       | 5    |

2. bilera:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkari-kopurua | Udalerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak                |             | Generoa |      |
|-----------------|----------------------------------|---------------|---------------|---------|--------|------------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                  |               | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkaritza politikoa | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 12                               | 9             | -             | -       | 12     | 10                     | 2           | 5       | 7    |

Guztira:

| BILERA-MOTA     | Udalerrietatik ordezkarikopurua | Udalerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak               |             | Generoa |      |
|-----------------|---------------------------------|---------------|---------------|---------|--------|-----------------------|-------------|---------|------|
|                 |                                 |               | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkarik politikoak | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurrekoa | 18                              | 12            | -             | -       | 18     | 14                    | 4           | 9       | 5    |

→ Udaletako marko legala

Uztaileko Bilgune Teknikoan identifikatutako behar bati helduta, udaletako marko legalaren lanketari ekin diogu. Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioaren markoaren logikatik lan egiterakoan, Udalak zailtasunekin topatzen dira hainbat egitasmo eta ekintza aurrera eramaterakoan, eta zailtasun horietako batzuk lege-eremuarekin lotzen dira. Lege markoaren zurruntasuna batzuetan praktika komunitarioa garatzeko oztopo izaten da eta udalek gaia nola kudeatzen dutenaren arabera, zailtasunak gaintitu egin daitezke edo traba bihur daitezke, ekintza bera oztopatzeraino.

Lanketa hau egiteko prozesua diseinatu dugu:



2024ko udazkenean aktibatu dugu entzute-fasea. Hauek izan dira egin ditugun elkarrizketak:

| Udala           | Elkarrizketatuak  |
|-----------------|---|
| Asteasuko Udala | Asteasuko alkatea<br>Asteasuko partaidetza, gazteria, berdintasun eta migrazio teknikaria |
| Zumaiko Udala   | Zumaiko berdintasun eta partaidetza teknikaria<br>Zumaiko Idazkaritzako teknikaria        |

Elkarrizketak eginda, analisi-faseko lehen urratsa garatu dugu eta elkarrizketan agertutako egoera eta kasuistika desberdinak aztertuz, honako beharrak atzeman ditugu:

- Arautegi bat jasotzen duena nola integratu administrazioan herritarren ekimenetik datorren proiektu bat eta zein izan beharko litzatekeen funtzionamendua (LILEn agertzea idealena izango litzateke).
- Egoeraren azterketa juridikoa egitea, ez idazkariak eginga, baizik kanpo-figura batek baina idazkariaren hizkuntza berbera erabiltzen duena, gero berarekin partekatzeko.

- Idazkariak hezi behar ditugu garapen komunitarioan. Irizpideak ezin du soilik legea betetzea izan behar, herri ikuspegia ere beharrezkoa da. Honekin lotuta, prozesu komunitario askoren logikak ulertzeko Talde Eragileetan parte hartzea interesgarria izan daitekeela aipatu da.
- Belaunaldi berriak (idazkari zein politiko) begirada zorrotzetik datoz, legean oinarritzen dira.
- Kasuen azterketa zehatzekin osatutako direktorioa.
- Partaidetzako ordenantzetan, elkartegintzako harremana blindatzeko aukera eman daiteke.
- Garapen komunitarioak batez ere herri txikietan zentzua du baina herri txikiek guztia sostengatzeko baliabiderik ez dituztenez, tranpa batean gaude. Modu indibidualean heldu ezin diegun gaiei modu kolektiboan edo mankomunatuan zergatik ez diegu heltzen? Administrazioa aldatzeaz ari garenean, araudiak aldatu beharraz ere ari gara.

2025ean garatuko ditugu prozesuan irudikatutako hurrengo urratsak, beharrei erantzuteko estrategiak eta baliabideak garatuz.

#### 4.4.2.3. Partaidetza komunitarioa

Aurten, bereziki, harrera ibilbide komunitarioaren ezaugarritzean jarri dugu fokua eta horretarako ekimen desberdinak burutu dira, batzuk zuzenean Elhuyarrek bideratuta eta bestetan partaide hutsak izan gara:

##### → Harrera ibilbide komunitarioak

Harrera ibilbide komunitarioen lantaldearen azken bilera egin genuen urte hasieran eta lanketa horretatik sortu ziren “Harrera komunitarioetara hurbilketa: ibilbide integralak diseinatzeko gakoak” gida eta ikus-entzunezkoa. 2023an abiatutako lanketaren amaiera izan da beraz. Emaizak, harrera-ibilbide integral komunitarioak nola ulertzen ditugun azaltzeaz gain, harrera-ibilbideen diseinuan eta garapenean ikuspegi komunitarioa nola txertatu hausnartzeko galdera-gakoak jasotzen ditu, genero-ikuspegia eta hizkuntza-ikuspegia ere barne hartuz.

Dokumentua zein ikus-entzunezkoa II. Aniztasun Foru Planean planteatzen diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren arloen arteko zeharkako lanetik abiatzen da. Horretarako, elkarlanean jardun dira Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikorako Zuzendaritzak kudeatzen duen Elkarbizi Sarea eta Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak kudeatzen duen Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioa, aniztasun- eta migrazio-teknikarien eta partaidetza-teknikarien ikuspegiak uztartuz.



- [“Harrera komunitarioetara hurbilketa: ibilbide integralak diseinatzeko gakoak” liburuxka](#)



- [Ikus-entzunezkoa](#)

Ondoren, egindako lana aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen apirilean, “Harrera integral komunitarioa Gipuzkoan” izenburupean. Jardunaldian egindako lana aurkezteaz gain, lurraldeko hainbat udalerrietako praktika-onak ere aurkeztu ziren.

#### → Ekintza komunitarioaren markoan sakontzen

Bestalde, lurraldeko ekintza komunitarioaren markoaren definizioaren hurrengo urrats gisa, ekintza komunitarioaren metodologian sakontzeko kontraste-bilera bat egin da, Oskar Rebolloren gidaritzapean.

#### → Interseksionalitatea eta kulturartekotasuna

Eta azkenik, Elkarbizi sareak antolatutako kulturartekotasuna eta interseksionalitatearen trebakuntzetan parte hartzeko aukera izan dugu.

Lehendabizikoaren helburua izan da jatorri, fenotipo edo identifikazio kulturalagatik esperimentera daitezkeen diskriminazio instituzionaleko moduak identifikatzea eta aztertzea, bai eta kulturarteko ikuspegitik horiei heltzeko tresnak eskaintzea ere. Lola Lopezen eskutik jaso dugu.

Eta bigarrenarena, ikuspegi interseksionala tresna teoriko eta metodologiko gisa aurkeztea. Horretarako, pentsalari feministen proposamenak jorratu dira, patriarkatuaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren arteko harremana aztertzen dutenak. Bereziki, egitura horien arteko harremanek emakumeen, transexualen eta komunitate arrazializatuen bizitzan duten eragina aztertu da. Florencia Brizuelaren eskutik jaso dugu.

### 4.4.3. Trebakuntza

Gipuzkoako Eskola Irekia, dagoeneko, ari da bere ibilbidea egiten eta hortxe kokatzen ditugu 2024an garatu ditugun ekimenak, partaidetzaren kultura politikoa sustatzeko trebakuntzan sakontzen jarraitzea helburu:

#### → Bidelaguntza Programa

Batetik, Bidelaguntza programaren baitan, urtearen lehenengo lauhilekoan, udalek partaidetza eta ekintza komunitarioan sakontzen jarraitzeko egin dituzten trebakuntza-tailerrak, udal bakoitzera egokitutakoak. 5 tailer eskaini dira eta bakoitza aholkularitza batek diseinatu eta bideratu ditu.



- [Tailerrek kuantitatiboki eman dutenaren inguruko bideoa](#)

Ondoren, tailer guztietan egindako lana komunean jarri eta ikasketak eta hobetzekoak identifikatzeko maiatzaren amaieran itzulera-saioa egin genuen. Bertara deituak izan ziren tailerrak egin zituzten udalerrietako ordezkariak, teknikariak eta politikariak.

Saioak, helburu bikoitza izan zuen. Batetik, tailerren ikasitakotik ondorio partekatuak ateratzea; eta bestetik, erronkak eta hurrengo urratsak elkarrekin lantzea. Saio honetan presentzia handia hartu zuen lidergo partekatuaren gaian sakontzeko beharrak eta hauxe bera izan zen, aurretik aipatu dugun eta azaroaren 21ean egin dugun jardunaldia antolatzeari ekiteko hazia.



| BILERA-MOTA  | Udalerrietatik ordezkarikopurua | Udallerri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak                 |             | Generoa |      |
|--------------|---------------------------------|----------------|---------------|---------|--------|-------------------------|-------------|---------|------|
|              |                                 |                | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkarit politikokoak | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurre | 18                              | 12             | 10            | 6       | 2      | 9                       | 9           | 8       | 10   |

→ **Partaidetzazko aurrekontuak**

Trebakuntza-pilula gisa, urtearen erdialdean, partaidetzazko aurrekontuen inguruan trebakuntza bat eskaini dugu, aurrekontuen kalitatezko prozesu bat gauzatzeko gomendioetan oinarrituta. Hain zuzen ere, kalitatezko partaidetza-prozesu batek bildu behar dituen faseak eta fase bakoitzeko urrats nagusiak zeintzuk diren azaldu dugu. Beti ere, jakitun izanik, tokian tokiko errealitatera egokitzea garrantzitsua dela, baina partaidetzaren ikuspegia ahalik eta barneratuena izateko, badaudela, gutxienez, kontutan hartu beharreko gako nagusi batzuk.

Saioaren helburua ez da izan partaidetzazko aurrekontuak nola diseinatu eta garatu behar diren esatea, baizik eta, bertaratuen udalerrietako prozesuak hobetzeko inspirazio- eta gogoetarako-iturri izatea. Honenbestez, saioak alderdi teorikoa izan zuen batetik; eta bestetik, gogoetarako tartea ireki genuen bertaratuen bizipenei eta kezkei bide emanez.



- [Ikastaroko hitzartzearen bideoa](#)



| BILERA-MOTA  | Udalerrietatik ordezkarikopurua | Udalerrri kop. | Herri tamaina |         |        | Ardurak              |             | Generoa |      |
|--------------|---------------------------------|----------------|---------------|---------|--------|----------------------|-------------|---------|------|
|              |                                 |                | Handia        | Ertaina | Txikia | Ordezkarik politikoa | Teknikariak | Emak.   | Giz. |
| Aurrez aurre | 17                              | 13             | 5             | 10      | 2      | 8                    | 9           | 11      | 6    |

→ UIK Ikastaroa

UIKekin elkarlanean, aurren ere irailean antolatu bi egunetako ikastaroa antolatu du Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaritzak: *Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?* izenburupean.




### 4.4.4. Komunikazioa

Komunikazioari dagokionez, eta aurreko urteetako dinamikari jarraipena emanez, proiektuan parte hartzen duten udalen arteko barne-komunikazioari lotutako estrategia landu dugu.

Barne-komunikazioaren alorrean, kanal nagusia honakoa izan da:

→ Buletinak

Herritarren partaidetzari buruzko berriak, praktika onak eta artikulu interesgarriak jaso dira bertan, baita Gipuzkoako lurraldean, zein Gipuzkoatik kanpoko albisteak ere. Guztira 4 buletin bidali dira: apirilean, uztailan, azaroan eta abenduan. Aurten gainera, irudi aldetik eraberrituta iritsi zaigu.







## 5 BALORAZIOA

### 5.1. Balorazio orokorra

- **Baldintzak.** 2023an egindako ebaluazio-prozesuarekin eta norabide partekatua diseinatzeko prozesuarekin, 2024ari sendo ekiteko baldintza egokiak landu genituela esan genezake. Horren adierazle da, legegintzaldi berriarekin batera udalerrri berrietako ordezkariak gehitu zitzaizkigula eta aurtengo dinamikan beraien parte-hartzea egonkortu egin dela. Batez ere, politikarien kasuan, eta azpimarratuko genuke politikarien aniztasuna.
- **Malgutasuna.** Azken urteetako dinamika da egituren araberako lanketak egitetik, lanketek eskatzen dutenaren araberako egitura edota formatuetarako bidea eginez dihardugu; eta horrek ahalbidetzen digu teoria eta praktika uztartuz lan egitea, uneko testuinguru eta beharretara egokituta. Baina, nola ez, lanerako oinarriak eta norabidea argi izanik. Honenbestez, urte hasierako planifikazioa biziak izan behar duela ulertzen dugu eta zentzu honetan, aurreikusitako ekintza batzuk bere horretan gauzatu ez diren arren, berriei toki egin diegu.
- **Partaideen profila:** ikuspegia zabaldu dugu, partaideen profil aniztetan begirada jarriz. Partaidetza eta ikuspegi komunitarioaren begirada udaletako beste alorretako teknikariengana hurbildu dugu (aniztasun-teknikariak; arlo juridikoan idazkari eta kontu-hartzaileak...) eta horrek ekarri du, beste sailtako beharrei erantzuteko planifikazioan urratsak ematea. Profil anitzek behar anitzei erantzuten die.
- **Asebetetzea.** Jarduera bakoitzean parte hartu duten kideen balorazioak ikusirik esan genezake urte emankorra izan dela, bai parte-hartzaile kopuru aldetik eta baita partaideek Erakunde arteko Espazioaren jardunari emandako baliagarritasunari dagokionez ere.
- **Koherentzia.** Aurrera eramandako jarduera bakoitzak bere helburu propioak dituen arren, saio bakoitzean gertatzen zena, hurrengo jarduerarekin harilkatzeko jostun lanetan aritu gara. Esaterako, Bidelaguntza-tailerren itzulera-saioak zabaldu digu lidergo partekatuen gaiari heltzeko aukera eta lanketa horrek zabaldu digu, herritarren partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren lan-eremua definitzeko aitzakia.
- **Aurrerantzean.** Bide beretsuan jarraitzea aurreikusten dugu, 4 urteko plan estrategikoan jasotakoa oraindik ere indarrean dagoela berresten dugu. Bai iruditzen zaigu, politikarien inplikazioa baliatu beharko genukeela jauzi kualitatibo bat eginez, herritarren partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren lan-eremuaren inguruko lurraldeko marko komun bat adosteko, eta izan daitekeela 2025eko erronka nagusia.
- **Norabidea.** 4 urtetako norabide estrategikoa finkatu genuen 2023ko legegintzaldia hasi orduko baina badakigu testuinguruak eta baldintzak azkar aldatzen direla. Horregatik, aurtengo urte amaierako mugarri garrantzitsua izango da zuzendaritzarekin egin asmo dugun plangintzaldi erdiko ebaluazioa.

2024a zenbakietan <sup>1 2</sup>



<sup>1</sup> 2024ko parte hartze datuak laburtzeko garaian Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioan parte hartu duten Gipuzkoako udalerrietako ordezkari politiko eta udal-teknikariak hartu dira kontuan, kanpo gelditu direlarik Gipuzkoako elkarteetako ordezkariak. Hala ere, elkarteen kasuan: 15 elkarte desberdinetako 17 lagunek hartu dute parte, 12 emakumek eta 5 gizonok.

<sup>2</sup> Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioko egitura iraunkor eta langetetako partaideak hartu dira kontuan dira, kanpo gelditu direlarik: Herri Partaidetzarako eta Ekintza Komunitarioako lidergo partekatutako jardunaldiko parte hartze datuak, *baita UIK ikastaroko, harrera jardunaldiko eta intersektzionalitate trebakuntzako datuak ere.*